

UNIBERTSITATEA-ENPRESA-GIZARTEA IKERKETA PROIEKTUETARAKO 2019KO LAGUNTZA DEIALDIA ***Behin betiko 2. erabakia , aurrekontuen handitzearekin***

2019ko urriaren 24an Unibertsitate-Enpresa-Gizartea deialdiaren behin betiko ebazpena argitaratu zen UPV/EHUREN web orrian. Eskatutako gutxiena baino kofinantzaketa gehiago zuten proiektuei, aurrekontua igotzeko aukera ematen zitzaien han; beti deialdiaren baldintza guztiak betetzen zituztela kontutan hartuta . Horretarako, 10 eguneko epea zabaldu zen. Behin legezko epean eta eran jasotako dokumentuak berrikusirik:

ERABAKI DA errektoreordetzaren webgunean deialdiaren behin betiko bigarren erabakia argitaratzeko agintzea, honetan, aurrekontu-igoera izan duten **proiektuak bakarrik** azaltzen direlarik.

Errekurtsoak:

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta beraren kontra egiteko honako bide hauek erabili ahal izango dira, baina inola ere ez aldi berean:

1. Aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean, erabakia argitara eman duen organoaren beraren aurrean.

Administrazio errekurtso hori jarriz gero, eta errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean esanbidezko erabakirik jaso ezean, errekurtsoa ezetsi egin dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Errekurtsoa ezetsizat joa izan dela ulertuz gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsoa ezetsizat jo eta biharamunetik kontatzen hasita (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena, 116 eta 117. artikulua; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena, 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

OHAR GARRANTZITSUA:

Eskatzen da honi buruzko kontsulta guztiak posta elektronikoaren bidez egin daitezela, helbide honetara convocatorias.dgi@ehu.eus, **mezuaren gaien hau jarri: "US deialdia"**.

Leioan, 2019ko azaroaren 22an.

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
IKERKETAREN GESTIOKO ZUZENDARITZA
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA

IN NAN	KODEA	EBAZPENA	EMANDAKO LAGUNTZA HANDITUTA
29036733S	US 19/13	EMANDAKOA	25200,00
14252097D	US 19/07	EMANDAKOA	9000,00
30588607X	US 19/06	EMANDAKOA	1800,00
44132008E	US 19/10	EMANDAKOA	5062,50